Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko abenduaren 23a, astelehena — 246 — Lunes, a 23 de diciembre de 2024



## LEZOKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak 2023 azaroaren 29an egin zuen bilkuran, besteak beste, Sektore Publikoko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak xedatutakoaren baitan, Udalbatzaren eskumenekoak diren espedienteetan Kontratazio Mahai Iraunkorra eta bere osaera izendatzeko erabakia hartu zuen. Erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2023ko abenduaren 18an, 241 zenbakiarekin. Erabaki horretan, eta udaleko langileengan izandako aldaketen ondorioz, beharrezkoa da Kontratazio Mahai Iraunkorraren osaera berritzea Osoko Bilkuraren eskumenekoak diren espedienteetan.

Horregatik, 2024ko azaroaren 28an egindako bilkuran, Udalbatzak Kontratazio Mahai Iraunkorra berritzea erabaki zuen, Udalbatzaren eskumenekoak diren espedienteetan. Hona hemen hartutako erabakia:

*Bat.* Udalbatzaren eskumenekoak diren espedienteetarako, kontratazio Mahai Iraunkorraren osaera berritzeko proposamena:

4. berria:

— Titularra: Leire Peñalba Rebolledo, Administrazio Orokorreko Teknikaria.

Mahaiko idazkari ordezko berria:

— Amaia Galdós Kazabón, administraria.

*Bi.* Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

*Hiru.* Sektore Publikoko Kontratuen Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21.4 artikuluan zehaztutako gutxieneko epearen kalterik gabe, osaera berria erabaki hau hartu ondoren hasten diren kontratazio espedienteetan izango du eragina.

Lezo, 2024ko abenduaren 4a.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (9069)

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Anuncio*

El Pleno del ayuntamiento, en sesión celebrada el día 29 de noviembre de 2023, adoptó, entre otros, en el marco de lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, del Sector Público, el acuerdo de designación de la Mesa Permanente de Contratación y su composición en los expedientes competencia del Pleno. El acuerdo se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 18 de diciembre de 2023 con el numero 241. En dicho acuerdo, y a consecuencia de cambios producidos en el personal del ayuntamiento se precisa la renovación de la composición de la Mesa de Contratación Permanente en expedientes que sean competencia del Pleno.

Por ello, en sesión celebrada el día 28 de noviembre de 2024, el Pleno adoptó la renovación de la Mesa de Contratación Permanente en expedientes que sean competencia del Pleno. He aquí el acuerdo adoptado:

*Primero.* Proponer la renovación de la mesa de contratación permanente para los expedientes cuya competencia corresponde al Pleno de la siguiente manera:

Nuevo 4:

— Titular: Leire Peñalba Rebolledo, técnico de Administración General.

Nueva suplente de Secretaría de la Mesa:

— Amaia Galdós Kazabon, administrativa.

*Segundo.* Se dará cuenta de esta nueva composición de la Mesa de Contratación en el Perfil del Contratante y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Tercero.* Sin perjuicio del plazo mínimo establecido en el artículo 21.4 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley de Contratos del Sector Público, la nueva composición será efectiva para los expedientes de contratación que se inician con posterioridad a este acuerdo.

Lezo, a 4 de diciembre de 2024.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (9069)

EK\CV GAO-I-2024-09069